

Hezkuntza

«Akordioarekin ala akordiorik gabe» Hezkuntza erreforma iragarri du Buesak

Xehetasunik gabeko egitasmoa aurkeztu zuen Hezkuntza sailburuak

Jeltzale eta sozialistak ez dute oraindik akordiorik lortu Hezkuntzarako. Fernando Buesak Hezkuntza sistemaren erreforma egingo dela ziurtatu zuen, baina beste arlo guztietan ez zuen konpromezurik hartu nahi izan. Finantzaketak, hizkuntz perfilak eta euskalduntze prozesua zehaztu gabe daude oraindik.

FELIX IRIARTE / GASTEIZ

Hezkuntza sailburuak Gasteizko Legebiltzarrean azaldu zuen atzo legegintzaldi honetarako programa. Eguerdian presaka eta korrika sartu zen Legebiltzarrean atzo greban zeuden ikastetxe pribatuetako langileak bere atzean bait zituen hobekuntzak eskatzeko. Legebiltzarreko aretoan, lasaiago, luze ihardun zuen programa aurkezten, baina PSOErena ezik, ez zituen beste alderdien oniritziak eskuratu.

Buesak onartu zuen konpromezu bakarra, Hezkuntza sistemaren erreforma egitea izan zen. Gai nontzeko arlo guztietan ez zuen konpromezurik hartu nahi izan, oraindik ez dutelako akordioa lortu gobernua osatzen duten alderdien artean. «Erreforma egingo da; akordioa badago hobe, baina edozein modutan ere egingo da» esan zuen.

Oposizioak gogor kritikatu zuen Buesaren egitasmoa, «asmoak» bakarrik iragarri zituela esanez. Buesak ez zuen xehetasunik eskaini Hezkuntzan zeresan ugari eman duen hainbat arlori buruz. Ikastoletako finantzaketak nola egingo diren, euskalduntze prozesuaren urratsak, legeak egiteko epeak, perfil linguistikoak,



Erreformaz gain beste arloetan ez zuen konpromezurik hartu Buesak. OLAIDE

Akordioaren ardatzak

Gobernu hirukoitzaren koalizio akordioak argi eta garbi esaten du seigarren atalean, EAJ, PSOE eta EEK «beharrezkoa den adostasunera iristeko» etenik gabeko negoziaketan ihardungo dutela. Asmo hori burutu ahal izateko Hezkuntza Saileko «ezadostasunak» aukera paregabea eskaintzen die hiru alderdiei, onartu bait dute akordiorik ez dagoela.

Joseba Aurrekoetxea jeltzaleak, behin betirako adostasuna lortzeko asmoz, lau ardatzen inguruko eztabaida proposatu zion Buesari. Lehena «irizpide irekiekin» eginiko plangintzaren beharra, errendimendu onak ateratzeko. Bigarrena hezkuntza sistema osoaren euskalduntzea litzateke. Kasu honetan, eredu bakoitzarekiko hizkuntz perfil zehaztuz lortuko litzateke akordioa. Hirugarren ardatza sektore ez publikoari dagokio. Egutegi bat behar da «beharrezko finantzaketak» argitzeko, eta laugarrena hezkuntza sareak zehaztea litzateke Aurrekoetxearen esanetan.

ordainketa delegatua, langileen homologazioa eta hezkuntza sareak erantzun zehatzik gabe geratu ziren, «akordiorik ez dagoelako».

Iñazio Oliveri Hezkuntza sailburu ohiak eskertu egin zion Buesari «zehaztu ez daitekeena zehazten saiatzeagatik», baina programa bat

✓ Buesak ez zuen xehetasunik eskaini Hezkuntzan zeresan ugari eman duen hainbat arlori buruz.

Finantzaketak, hizkuntz perfilak eta euskalduntze prozesua zehaztu gabe daude oraindik.

aurkeztea «beharrezkoa» dela adierazi zion. «Aurreko hirukoitzaren egitasmoak erreferentzi puntuak zituen, oraingoak aldiz ez» esan zuen. Akordiorik ezean ez dela aurreratzeko, eta bitartean Madrilan agindutara egotea leporatu zion Oliveri Hezkuntza sailburuari.

Hezkuntza sailburuak bere jarrera zuritu zuen, oposizioak beti epeak eta gauza zehatzak eskatzen dituela esanez. «Hori zuen jokoa da» erantzun zion oposizioko taldeei. Buesak bere asmoen artean ordainketa delegatuaren beharraz «konbentzitzea» eta hizkuntz perfilak dauden bezala uztea nabarmendu zituen. Ikastolei buruz ezer gutxi argitu zuen, irizpide bat «garbi» zuela ez bada. «Publikoak izan nahi badute ikastetxe publikoak bezala jasoko dute dirua eta pribatuen bidetik badoaz ondorio guztiekin izango da, baina ez da posible hirugarren sare bat». Buesak esandakoa zela eta, Leopoldo Barreda PPKoa eta Oliveri bat etorri ziren azaldutako «dudamugak» erreforma bertan behera utz dezaketela esaterakoan. «Zalantza konfrontaziorako bidea errazten du» esan zuen EAkoak.



Pedro Burillo.

OSKAR

NUPEko errektore berria izendatzeko eskatu du Parlamentuak

A.U. / IRUNEA

Foru Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publiko—NUP—burua berriro izendatzeko eskatu zion atzo Juan Cruz Alliren Exekutiboari.

Jakina denez, UPNren Gobernuak Pedro Burillo errektore kargutik kendu zuen duela hilabete eta Antonio Gonzalez izendatu zuen haren ordean eta «konfidantzako» pertsona zela argudiatu. Erabakiak kritikak piztu zituen unibertsitate munduan eta baita oposizioko alderdien artean ere, NUPen autonomia ez zela errespetatu uste zutelako.

Foru Parlamentuak atzo egin zuen osoko bilkuran sozialistek aurkeztutako mozioa eztabaidatu zen. Burilloren kargugabetzea baliorik gabe uztea eta errektorearen izendapenean alderdi guztien eta NUPEko gobernua batzordearen partehartzea eskatu zen bertan. Mozioak aurrera egin zuen EA et IUREn botoekin, baina ez seguruenik ez du eraginik izango, eskaerak ez zuelako Gobernu hura betetzera behartzen.

Lurrazpiko uren azterketa EAEn konpetentzia dela dio Auzitegiak

DONOSTIA

Euskal Autonomi Elkarte—EAE— lurrazpiko uren kalitatearen kontrola EAE bertako agintarien konpetentzia dela onartu du Auzitegi Konstituzionalak. Edateko ura izateko lurrazpiko uren azterketa buruz Herrilan Ministeritzak duen agindu batean 2, 3 eta 6 artikulua EAEn ezin daitezkeela aplikatu erabaki du Auzitegiak plazaratutako epaian.

Halere, erabakiak ez dituela artikulua ezeztatzen dio epaiak, «herrialde ezberdin ugari dagoenez, beste herrialdeetan balioa izan dezaketelako artikulua».



DIMAKO UDALA

IRAGARKIA

Dimako Udalak, kontzertu zuzen bidez, mediku etxearen konponketa obrak kontratatzea beharrezkoa du. Honen enkante mota, 10.942.288 pta.koa da.

Interesa duten enpresek, baldintza orriak Udaletxean jaso ahal izango dute eta Proiektu Teknikoaren kopia, «Cianoplan» en. Proposamenak, iragarki hau argitaratzen denetik zenbatzen hasita, hamar eguneko epean aurkeztu beharko dira.

Dima, 1991ko azaroaren 7an
ALKATEA

Irakaskuntza pribatuko ELAk «bilera» eskatu zion Buesari

L.K.G. / GASTEIZ

‘Homologazioa Orain’ lemarekin, irakaskuntza pribatuko ELAko ehun ordezkari inguru bildu ziren atzo Lakua eta Eusko Legebiltzarrean aurrean. Hezkuntza Sailak iragan irailarako aginduta zuen sindikatu, administrazio eta patronalaren arteko «bilera behingoz egitea» izan zen funtsezko aldarrikapena, Larramendi ELAko kideak adierazi zuenez.

Hezkuntza Sailaren ildo nagusiak Legebiltzarrean atzo adierazi zituen Fernando Buesa sailburuak «irakaskuntza pribatua bera eta sektore honetako langileak bereiztu behar» duela esan zuen Larramendik.

Homologazio prozesuaren zehazteko era eta egutegia, krisialdian diren ikastetxetako langileentzako irtenbideak eta irakasleen euskalduntze zein birziklapena dira, ELAren iritziz, Hezkuntzak iraileko «aginduta» zuen bilerarako gaiak.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzako Sailak «irakaskuntza publikoa bideratzeko kezka besterik ez» dituela salatu zuen ELAko bozeramaleak. Bere esanetan, egun Hezkuntzan dauden sozialistek «ez dute argi irakaskuntza pribatuaren homologazioa bidera daitekeen, ezta krisialdiko ikastetxei zein irtenbide eman behar zaizen ere». Zentru pribatueta-

ko langileen «soldata urriak» azpimarratu zituen, «irakaskuntza publikoekin konparaturik 300.000 pezetatik 700.000 pezetaren arteko ezberdintasunak bait dira». Beste sektoretakoek duten beste edo «aukera berdinarak» izatea eskatu zuen sindikatuko ordezkariak.

Irakaskuntza pribatukoaren mobilizazioak Hezkuntza Saileko goi agintariak hurbiletik ikusi behar izan zituzten. Buesak Eusko Legebiltzarrean inguruan pasatuko «komeriaz» gain, Jose Luis Avila sailburuordeak ere manifestarien txistuak entzun zituen Lakuatik ateratzen ari zela, bildutakoengandik lau metrora taxia hartzea bururatu bait zitzaion.